

# 7/1/24

## *irizpena*

Etxeko animaliek eta gatibu dauden animalia basatiek EAEko ikuskizun publikoetan parte hartzeko animalien ongizaterako irizpideak arautzen dituen **dekretu-proiektuari buruzkoa**

Bilbo, 2024ko apirilaren 30a



CES  
EGAB

Consejo Económico  
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte  
Arazoetarako Batzordea

**Irizpena 7/24**

---

## I.- AURREKARIAK

2024ko apirilaren 9an Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean *Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren idazkia sartu zen eta txostena eskatu zuen etxeko animaliek eta gatibu dauden animalia basatiek EAEko ikuskizun publikoetan parte hartzeko animalien ongizaterako irizpideak arautzen dituen dekretu-proiektuari buruz, 8/2012 Legeak, maiatzaren 17koak, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari buruzkoak, 3.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.*

Arauaren xedea da arauturik uztea 9/2022 Legearen 27. artikuluan eta Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Legeko Erregelamenduaren 103. artikuluan azaltzen den foru-erakundeen baimena zer irizpideren arabera eman behar den albaitaritzaren aldetik eta animalien ongizatearen aldetik.

Jasotako dokumentuaren kopia berehala bidali zitzaien Kontseiluaren Osoko Bilkurako kide guztiei, euren proposamenak eta iritzia igorri eta horien berri lan-batzorde egokiari helaraz ziezaieten, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Funtzionamendu Araudian ezarritakoari jarraikiz. Gizarte Garapenerako Batzordea 2024ko apirilaren 23an bildu ostean, hartutako erabakietatik abiatuta, irizpen-proiektu hau egin da Batzordearen Osoko Bilkurak landu dezan. Bertan apirilaren 30ean aho batez onartu da.

## II.- EDUKIA

Dekretu-proiektuak honako hauek ditu: hitzaurrea eta xedapen-zatia (7 artikulua, xedapen indargabetzaile bat, azkeneko bat eta 2 eranskin).

### Xedapenen zatia

1. artikulua. - Xedea.
2. artikulua. - Definizioak.
3. artikulua. - Animaliekiko ikuskizunen baldintzak animalien ongizatea zaintzeko.
4. artikulua. - Betebeharrak.
5. artikulua. - Aurretiazko baimenaren prozedura.
6. artikulua. - Eskumenak eta erantzukizunak.
7. artikulua. - Urraketak.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Legea garatzen duen Erregelamenduaren (17/2019 Dekretua) bigarren xedapen gehigarriko puntu bati buruzkoa.

AZKEN XEDAPENA, indarrean sartzeari buruzkoa.

## III.- GOGOETA OROKORRAK

Dekretu-proiektuaren hitzaurreak aipatutakoaren bidetik, **Etxeko Animaliak Babesteari buruzko ekainaren 30eko 9/2022 Euskal Legearen** II. tituluko IV. kapituluan animaliekin egindako ikuskizunak arautzen dira, animalia partaideei edozein sufrimendu saihesteko gauza daitezen. Zehazki, 27.1 artikulua babesean, *“debekatuta dago animaliekin ikuskizunak egitea, baldin eta beren garapen-araudirik ez badute, izan artistikoak, kulturalak, kirolekoak edo antzekoak, publikoak edo pribatuak, eta lokal itxi edo ireki batean, aire zabaleko esparru batean edo bide publikoan, instalazio finko, eramangarri edo desmuntagarrietan eginak”*. Era berean, bigarren apartatuak honako hau dio: *“animaliekin egindako ikuskizunen erregelamenduen eta baimenen xedea izango da ikuskizun horien eta horiekin lotutako jardueren prestaketa, antolaketa eta garapena arautzea. Era berean, emandako baimenen kasuan, ikuskizunen arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak baliozkotuta egon*

*beharko dute”.*

Bestalde, animaliek parte hartzen duten ikuskizunetarako **Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren 10/2015 Legearen** 5. artikulua ezartzen dituen printzipio gidarien artean dago ikuskizunetan eta jolas-jardueretan parte hartzen duten animaliak eta haien ongizatea babesteko baldintzak bermatzea (f apartatua). Ikuskizun debekatuen artean ageri dira, berriz, animaliak babesteko araudia betetzen ez dutenak (d puntua).

Aldi berean, **10/2015 Legea garatzeko erregelamendua onesten duen otsailaren 5eko 17/2019 Dekretuaren** 102.2 artikulua zehazten du administrazio-baimen singularra edo aurretiazko komunikazioa beharko dutela honako jendaurreko ikuskizun edo jolas-jarduera hauek: bide edo eremu publikoetan garatzen direnak; dagokion gaikuntza-tituluaren babespean ez dauden lokaletan aldian behin egiten direnak eta jendaurreko ikuskizunak edo jolas-jarduerak egiteko gaikuntza-titulua duten establezimendu publikoetan aldian behin egindakoak, ikuskizun eta jarduera horien eraginez baldintza tekniko orokorrak aldatu behar badira, segurtasuna ere aldatu behar bada, edukiera handitu behar bada, edo jendea hartzeko egitura desmontagarriak jarri behar badira. Ildo horri eutsiz, dekretuak aurrez ikusten du jendaurreko ikuskizunetan eta jolas-jardueretan animaliek parte hartzen badute edo exhibitzen badira, antolatzaileak eskaerarekin batera aurkeztu beharko duela abeltzaintzaren arloko eskumena duten foru-organismoek emandako aurretiazko baimena. Hortaz, aurretiazko baimen hori dekretu-proiektuan arautzen da.

Gainera, **Euskadiko jarduera fisikoaren eta kirol-jardueraren martxoaren 30eko 2/2023 Legeak** printzipio gidarien artean du berariaz animalien osasuna eta ongizatea babestea, baldin eta animalia horiek kirol-jardueretan esku hartzen badute (2. artikulua). Bestalde, 26. artikulua ezartzen du animaliek aktiboki parte hartzen duten edozein kirol-modalitate erregulatzen duten araudietan, lehiaketetan albaitari profesional bat egoteko betebeharra aurreikusiko dela, parte hartzen duten animalien osasun-egoera egokia dela kontrolatzeko eta, behar izanez gero, animalia horiei laguntza emateko.

Batzorde honek kontuan hartu ditu arau hauek eta dekretu-proiektuaren edukia, hain zuzen ere, 9/2022 Legean eta otsailaren 5eko 17/2019 Dekretuan xedatzen den foru-erakundearen baimena zer irizpideren arabera eman behar den albaitaritzaren aldetik eta animalien ongizatearen aldetik, eta, ondorioz, **irizpena emateko aurkeztu zaion dokumentua positibotzat eta egokituz jotzen du.**

## **IV.- GOGOETA BEREZIAK**

---

### **2. artikulua. Definizioak**

Azkeneko idatz-zatian honako hau aipatzen da: *“(...) dekretu honen ondorioetarako, ulertuko da debeku horrek aldi berean bi ezaugarri horiek betetzen dituzten ikuskizun eta jolas-jarduerari eragingo die, zirku-izaera dutenei eta ibiltariei”.*

Zalantza dugu zer gertatzen ote den jarduerak zirku-izaera duenean, baina ibiltaria ez denean edo jarduera ibiltaria izanik, zirku-izaerarik ez duenean.

### 3. artikulua. Animaliekiko ikuskizunen baldintzak animalien ongizatea zaintzeko

Lehenengo idatz-zatiaren arabera, *“abeltzaintzako eskumenak dituzten foru-organismoek ikuskizun bakoitza aztertu beharko dute, eta egiaztatu betetzen dutela animaliak babesteko araudia”*.

Garrantzitsua iruditzen zaigu eranskin bat sartzea jarraipena egiteko inprimakiarekin.

## V.- ONDORIOA

Euskadiko EGABren iritziz, *etxeko animaliek eta gatibu dauden animalia basatiek EAEko ikuskizun publikoetan parte hartzeko animalien ongizaterako irizpideak arautzen dituen dekretu-proiektua izapidetzea egokia da, betiere kontsulta-organo honek egin dituen gogoetak aintzat hartzen badira.*

Bilbon, 2024ko apirilaren 30ean

OE Presidentea

Javier Muñecas Herreras

Idazkari Nagusia

Izaskun Astondoa Sarria